

ARAUTEGIA

GIMNASTIKA ERRITMIKOA 2014

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, Euskadiko Gimnasiako Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2014ko maiatzaren 31an Gasteizko Abetxuko kiroldegian. Hona hemen arautegia:

1. PARTAIDETZA:

Infantil, 2000 eta 2001 urteetan jaiotako neska mutilak eta alebin, 2002 eta 2003 urteetan jaiotako neska mutilak.

2. JOKATZEKO MODUA

➤ Banakako lehiaketa:

Alebinak: ariketa bat eskuak libre direla eta beste bat uztaiarekin.

Infantilak: uztaiarekin eta pilotarekin ariketa bana.

➤ Taldekako lehiaketa

Alebinak: ariketa bat bost edo sei pilotekin.

Infantilak: ariketa bat bost edo sei uztaiekin.

➤ Taldeen osaera

Lurrealde bakoitzak alebin mailan hiru talde aurkez ditzake, bost edo sei gimnasta titular eta ordezkari batez osatuak, eta infantil mailan ere beste hiru talde, bost edo sei gimnastaz eta ordezkari batez osatuak. Horretaz gain, talde bakoitzeko ordezkari edo entrenatzaile bat ere egongo da.

Banakako modalitatean, lurrealde bakoitzak, kategoria bakoitzeko bostna gimnasta aurkez ditzake gehienez eta ordezkari edo entrenatzaile bana.

Taldekako lehiaketan kirolari berdinak ezingo du bi talde ezberdinetan parte hartu.

- Ariketa ezberdinen balio teknikoak Gimnasia Erritmikoko Euskal Federaziok argitaratutako arautegi eskolarraren arabera izango dira.
- Gimnasta bakoitzaren entrenatzaileak musika cd bat eraman beharko du, bertan erabilitako musika aurkeztutakoarena baino beste formatu batean izan beharko du erreprodukzioarekin arazoak ekiditeko.

3. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

- Taldekako lehiaketan:
Domina bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei kategoriako.
- Banakako lehiaketan:
Domina bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei kategoriako.
Aparatu bakoitzeko lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei.

4. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharririk sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

5. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa



EUSKADIKO XXXIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XXXIII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



- d. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 2014ko urtarrilaren 3ko AGINDUA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2014ko urtarrilaren 14ko EBAZPENA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f. Gimnasiako Euskal Federazioaren Arautegiak agindutakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezker, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.